

## Ua lanerako gogo!!...

*Euzko Gaztedi*, 4. zk., 1948-08: 13.

Erri gizietan izan oi dan alako gizon parregarri ta jostailu aña alper zan bat ba'genduan gurean ere. "Patxi ijitoa" deitzen ginion, ijitoak dituzten alperkeri guziak berekin zitualako nonbait, euskotar da euskaldun bete-betea zan jatorriz beintzat eta...

Non jaia, non zalaparta, non besteren gain moskorra arrpatzeko era, an biltzen zan gure gizona. Iñon egiten zan jaien batera, beste oberen batera joateko uzten bazuan, Patxi "ijitoa"ren utzunea nabaitzen zan... Aurrekua ateratzen iaioa zan, soñu-jozaileari bere ontzi urratu batekin ateratzen zituan zaratakin laguntzen trebea, par egiñazteko edozer gauz egiten artetzua benetan. Zertarako geiago esan!: "Patxi ijitoa" zan da, Tolosa'tik asi ta Donostiraño danak ezagutzen zuten Andoain'go ijitoa; simaurra baño sikiñaño jantziak, alperkerian guritutako gilborra, iñoiz uzte etzuan makil bat eskuan; ardo ta sagardo gozoz gorritutako sudur aundi batek betetzen zuan arpegi zabal bat, egundañoکو untu perretxikuaraen antzera erabiltzen zuan txapel baten azpian...

Bere autarkia geien ematen zuanarentzat izaten zan, eta iñori itz garbirik eman gabe danen bizkar-txalo, baxo-erdi ta itz legunak gozoro biltzen zituan askenengo ordua arte. Au eltzen zanean, geien eskeñi zionaren txartela botatzera joaten zan arro-arro.

– Emen, lurraldi ontako gauzak zuzen ibiliko ba'dira... gure bearra! ¡Noski!... Patxi ijitoa au ta bestea, baño garia eltzen danean "sombbrero"ko gizonak ere gure bearra!!...

– Zer degu: aparia ala bazkaria?!....

Asarretzen zan gure gizona. Etzuan alakorik entzun nai izaten, danak zekiten gauza izan arren..., ta itz gaiztoa zan olakotan, bestetan izan oi zan on añeko malkurra, zitala benetan.

Guda aurretik egin ziran alako autarki egun bat zan. Karlistetako agintari bat joan zitzaion legun-legun itzegitera. Ara ba!... Apari bat emango ziola, beste zertxo bat ere bai, bere sagardotegian zauzkan upelik onenetik sagardo goxoa janariari laguntzeko... Bost duro ere eskeñi zizkion askenean gizonak...

– Ez, Joxe, ez. Ori baño geiago biar det. Ez dira autarki egunak jateko Jaungoikoak egin ditun aiña maiz izaten da.... Benetan diozut, gutxi derizkiot... Gañera, beste aldekoak ere orrenbeste edo geiago eskeñi dirate ta... Egia diozut, eskerrikasko, baño ori besterik ez ba'dezu ez da zuretzat izango nerea...

– Tia, tia ba! –zion maltzur besteak–... lagunduko dizugu; nere lantegian lan pixka bat ere bilatuko dizut...

– Zer lana?!... Ara, Joxe, orain bai ez dizudala emango... Nere bizi guzian lanari igesi ta orain lana emango didazula?!... Ta nere autarkiaren truka?! Txuri egingo diagu!!... Kartzela joan naiago det, KARTZELA!!!....

*Erritar* [Martin Ugalde]